




Afiliatuen kopurua 1.000.000 ingurukoa da

Gizarte Segurantzako afiliazioa

Urte bakoitzeko apirila. Mila




Iturria: Gizarte Segurantza.

Apirilean, Gizarte Segurantzako afiliazioa % 1,5 gehitu zen aurreko urtearen aldean. Zehazki, serie historiko osoko baliorik handiena lortu zuen, 997.243 afiliatu erregistratu baitziren. Igoera horretan partaidetza zertxobait handiagoa izan zuten emakumeek (% 1,7) gizonek (% 1,3) baino.

Langabezia erregistratua %6,5 murriztu zen apirilean

Langabezia erregistratua

Urte bakoitzeko apirila. Mila




Iturria: Lanbide.

Lanbideren bulegoetan 108.001 langabe erregistratu ziren apirilean, aurreko urteko hil berean baino 7.553 gutxiago. Horrela, beheranzko joerarekin jarraitzen du, eta 2008tik apiril batean inoiz jaso den baliorik txikiena izan da. Jaitsiera, berriz ere, nabarmenagoa izan da gizonen artean (-%9,0) emakumeen artean baino (-%4,7).



IPIa %6,2 handitu zen martxoan

Industriaren ekoizpena
Urte bakoitzeko martxoa. Indizea




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako azken datuen arabera, Euskadiko industria produkzioa %6,2 hazi zen martxoan, aurreko urteko hil berarekin alderatuta. Bilakaera horren ondorioz, erregistrorik onena lortu zen martxo batean 2008tik. Osagai guztiek gorantz egin zuten, kontsumoko ondasun iraunkorrek eta energiak izan ezik.

Euroguneko langabezia tasa %6,5era jaitsi da martxoan

Langabezia tasaren bilakaera
Ehunekoak



Iturria: Eurostat.

Eurostatek zabaldutako informazioaren arabera, langabezia tasak behe-rantzko joerarekin jarraitu zuen eta %6,5ean kokatu zen, aurreko urtean baino hiru hamarren beherago. Jai-tsierra hori Txekiako (%2,6), Alemaniako (%2,8) eta Poloniako (%2,8) erre-gistro onetan oinarritu zen. Aitzitik, Espainiak (%12,8) eta Greziak (%10,9) markatu zituzten tasa handienak.